

Zaldibarko zabortegiaren inguruko uren kalitatearen jarraipen-txostena



2020/02/26

Aurkibidea

Zaldibareko zabortegiaren inguruko uren kalitatearen jarraipen-txostena.

2020 Otsailaren 26a.

1. Laginak hartzea.....	3
2. Analisisien emaitzak	7
3. Analisisien emaitzen interpretazioa eta ondorioak	10
4. Oharrak.....	11

1. Laginak hartzea

Zaldibarko zabortegiko urak zaintzeko plan eguneratua ezarritakoarekin bat etorritik (*Verter Recycling 2002 S.L.*)¹, jarraian zehazten den laginak hartzeko programa egin da:

1.1. EGUNERO HARTUTAKO LAGINEN ZERRENDA

Otsailaren 7tik 25ra arte, lagin hauek jaso dira:

- **2020ko otsailaren 07an**

Laginareen hartze-puntua	Laginareen identifikazioa	Ordua
1	Aixola erreka, zabortegitik ibaian gora	12:00
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	13:10
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	14:15

- **2020ko otsailaren 08an**

Laginareen hartze-puntua	Laginareen identifikazioa	Ordua
4	Ego 1	12:45
4'	Ego 2	13:30

- **2020ko otsailaren 9an**

Laginareen hartze-puntua	Laginareen identifikazioa	Ordua
4	Ego 1	10:45
4'	Ego 2	11:30

- **2020ko otsailaren 10ean**

Laginareen hartze-puntua	Laginareen identifikazioa	Ordua
1	Aixola erreka, zabortegitik ibaian gora	10:30
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	11:15
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	12:00
4	Ego 1	12:45
5	Ibur	13:30

¹ Hemen eskuragarri:

http://www.uragentzia.euskadi.eus/contenidos/informacion/seguimiento_ultimos_informes/eu_def/adjuntos/Zaldibar-zabortegiko-uren-jarraipenerako-plan-eguneratua-2020.02.21.pdf

- 2020ko otsailaren 11n

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixola erreka, zabortegitik ibaian gora	09:45
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	10:30
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	11:00
4	Ego 1	12:15
5	Ibur	11:45

- 2020ko otsailaren 12an

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixola erreka, zabortegitik ibaian gora	09:45
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	10:15
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	10:45
4	Ego 1	12:45
5	Ibur	11:30

- 2020ko otsailaren 13tik 19ra.

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua 2020/02/13	Ordua 2020/02/14	Ordua 2020/02/15	Ordua 2020/02/16	Ordua 2020/02/17	Ordua 2020/02/18	Ordua 2020/02/19
1	Aixola Erreka, zabortegitik ibaian gora	09:30	09:45	09:30	10:00	09:30	09:30	10:00
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	10:00	10:15	10:00	11:00	10:30	10:15	10:45
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	11:15	11:00	11:15	12:00	11:30	11:00	13:00
4	Ego 1	12:15	12:00	12:15	13:00	12:15	11:45	12:15
5	Ibur	11:45	11:30	11:45	12:30	12:00	11:25	11:45
6	Eitzagaetxebarría	10:15		13:15	10:30	10:00	10:00	10:15
7	Ibarbidearen drainaren parean	13:00	10:20	10:30	11:30	10:45	10:25	11:00

- **2020ko otsailaren 20a.**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixola Erreka, zabortegitik ibaian gora	09:00
2	Zabortegiko ibarbidearen draina	11:30
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	10:15
4	Ego 1	10:30
5	Ibur	10:45
6	Eitzagaetxebarria	09:30
7	Ibarbidearen drainaren parean	11:15
9	Ego ibaia, Aixolak bat egin aurretik	12:15

- **2020ko otsailaren 21etik 25ra.**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua (02/21)	Ordua (02/22)	Ordua (02/23)	Ordua (02/24)	Ordua (02/24)
1	Aixola Erreka, zabortegitik ibaian gora	08:35	10:05	11:20	12:25	11:05
2/7	Zabortegiko ibarbidearen draina	12:25	12:30	13:25	12:55	11:45
3	Beko-Aixola zabortegitik ibaian behera	09:40	11:40	12:55	11:30	10:15
4	Ego 1	11:55	11:25	12:35	10:55	09:50
5	Ibur	11:35	11:00	12:15	10:30	09:25
6	Eitzagaetxebarria	08:55	09:35	10:50	12:10	10:50
8	Bekoerreka erreka	12:10	10:25	11:45	12:45	11:20
9	Ego ibaia, Aixolak bat egin aurretik	09:15	12:00	13:05	11:40	10:30

Halaber, otsailaren 11 eta 17an, "Kutsatzaileak ekortzeko" laginak hartu ziren 2. eta 3. puntuetan.

Otsailaren 13an 2 laginketa bi hartze-puntu berrirekin indartu da:

- Seigarren puntu bat zehaztu da Eitzagaetxebarriako ibarbidean, zabortegiaren mendebaldean kokatuta, non euri urak, nahiz eta momentuz eskasak izan, eraginda izan daitezkeen.
- Zazpigarren puntua antzemandako isurketa puntu berri bati dagokio, otsailaren 13an zehaztuta, "Ibarbidearen drainaren" den 2. puntuaren parean.


Otsailaren 20an, laginketa puntu berri bat gehitu da:

- 9. puntua Ego ibaiari dagokio Aixola errekararekin bat egiten duen tokitik gora, eta ibaiaren ekarpenaren erreferentzia-kontrol gisa balioko du.

Otsailaren 21ean, lixibiatuaren isurketa (7. puntua) ibarbideko drainaren lixibiatuari (2. puntua) lotu zaio, eta laginketa beste puntu batera zabaldu da:

- 8. puntua Bekoerreka erreka da, Aixola errekararekin bat egin aurretik, eta erreka horren ekarpenaren erreferentzia-kontrol gisa balioko du.

1.2. HARTUTAKO LAGINEN HARTZE-PUNTUA



1.3. ETENGABEKO KONTROL-SAREA

Otsailaren 12an kontrol-estazio bat jarri da 3. kontrol-gunean (Aixola edo Beko erreka) (Ego ibaiarekin bat egin aurretik) denbora errealean datuak lortzeko. Helburua da zabortegean jatorria izan dezaketen lixibiatuek uraren egoera fisiko-kimikoan eragindako aldaketak berehala identifikatzeko adierazleei jarraipena egitea, dagozkion kontrolak edo neurriak hartu ahal izateko.

Estazioak ur-mailaren sentsoareak, 25º-tan eroankortasuna eta temperatura neurtzen ditu (TDS edo Disolbaturiko solidoak eta gazitasuna automatikoki kalkulatu).

Neurtze hori 10 minuturo egiten da, eta egunero 8: 30tan eta 15: 30tan eguneratzen dira zerbitzari informatikoetan, normaltasun-baldintzetan; alerta-kasuan, orduro.

2. Analisisien emaitzak

Laginketa puntualak. Gaur egun, jarraipen planean zehazten diren parametroen emaitza bat dago gutxienez, bai ibarvide-drainean (lixibiatuak), bai ingurune hartzailean (143 parametro). Orotara 143 parametro aztertu dira:

PARAMETROAK			
Oxigeno Saturazioaren%	Klorobentzenoa	Metilbentzenoa (Tolueno)	Sulfitoak
1,1,1-Trikloroetano-metilkloroformoa	Kloruroak	Naftalenoa	Sulfuroa
1,2,3-Triklorobentzenoa	Kobrea	Nikela	Xilenosen batura (isomero orto, meta, para)
1,2,4-Triklorobentzenoa	Koliforme fekalak	Nitratoa	HCHko isomeroen batura
1,2-Diklorobentzenoa = o-Diklorobentzenoa	Koliformeak guztira	Nitritoa	Uraren tenperatura
1,2-Dikloroetanoa	Kolorea	Nitrogenoa guztira	Tetrakloroetilenoa (perkloroetilenoa)
1,2-Dimetilbentzenoa (o-Xilenoa)	Eroankortasuna	Nitrogeno totala Kjhedahl	Karbono tetrakloruroa
1,3,5-Triklorobentzenoa	Landa-eroankortasuna	Ortofosfatao	Toxikotasuna
1,3-Diklorobentzenoa = m-Diklorobentzenoa	Kromoa	Oxigeno disolbatua	Triklorobentzenoak (batukaria)
1,4-diklorobentzenoa = p-Diklorobentzenoa	VI+ kromoa	Parafina kloratuak (kloroalkanoak (C10-C13))	Trikloroetilenoa
4- (P-) nonilfenola	DBO5, Oxigenoko eskaera biologikoa (5 egun)	PCB101	Triklorometanoa (kloroformoa)
Olioak eta koipeak	Delta-HCHa	PCB118	Uhertasuna
Alkalinitasuna	Detergenteak	PCB138	Zinka
Alfa-HCHa	Di (2-etilhexil) ftalatoa (DEHP)	PCB153	2,3,7,8-TCDD
Aluminioa	Diklorobentzenoa (orto, meta eta para isomeroen batura)	PCB180	1,2,3,7,8-PeCDD
Amoniakoa	Diklorometanoa	PCB20	1,2,3,4,7,8-HxCDD
Amonioa	OEK, oxigeno-eskaera kimikoa	PCB28	1,2,3,6,7,8-HxCDD
Antrazenoa	Gogortasuna	PCB-35	1,2,3,7,8,9-HxCDD
AOX- konposatu organohalogenatu adsorbiblikoak	Epsilon-HCH	PCB52	1,2,3,4,6,7,8-HpCDD
Artsenikoa	Eztainua	PCB-8	ELGA
Barioa	Estreptokoko fekalak	Pentabromodifenileter (PBDE-100) edo 2,2', 4,4', 6-pentabromodifenil ETER	2,3,7,8-TCDF
Bentzenoa	Etilbentzenoa	Pentabromodifenileter (PBDE-153) edo 2,2', 4,4', 5,5'-hexabromodifenil ETER	1,2,3,7,8-PeCDF
BENZO (a) pireno	Fenolak	Pentabromodifenileter (PBDE-154) edo 2,2', 4,4', 5,6'-hexabromodifenil ETER	2,3,4,7,8-PeCDF
BENZO (b) fluorantenoa	Fluorantenoa	Pentabromodifenileter (PBDE-47) edo 2,2', 4,4'-tetrabromodifenil ETER	1,2,3,4,7,8-HxCDF
BENZO (g, h, i) perilenoa	Fluoruroak	Pentabromodifenileter (PBDE-99)	1,2,3,6,7,8-HxCDF
BENZO (k) fluorantenoa	Fosforoa guztira	Ph	1,2,3,7,8,9-HxCDF
Beta-HCHa	Gamma-HCH (Lindano)	Eremuko pH-a	2,3,4,6,7,8-HxCDF
Bikarbonatoak	Hexaklorobentzenoa	Zilarra	1,2,3,4,6,7,8-HpCDF
Kadmioa	Hexaklorobutadienoa	Beruna	1,2,3,4,7,8,9-HpCDF
Kaltzioa	Hexakloroziklohexanoa (gutxieneko batukaria)	Potasioa	ELGA
Karbonatoak	Burdina	- Oktilfenola	Tetra-CDDak
Emari puntuala	Indeno (1,2,3-cd) pirenoa	Selenioa	Penta-CDDak
Zianatoak	M+p-xilenoa	Sodioa	Hexa-CDDak
Zianuro askeak	Magnesioa	Solido esekiak	Hepta-CDDak
Zianuroak guztira	Manganesoa	Solido sedimentagarriak	OCDD
Hondar-kloro askea	Merkurioa	Sulfatoak	

Etengabeko kontrol-sarea

Otsailaren 12tik, maila, eroankortasuna, temperatura eta TDS (solido disolbatuak)-en datuak lortzen ari dira denbora errealeko kontrol-estazioaren bidez.

3. Analisi-emaitzen interpretazioa eta ondorioak

Lixibiatuei dagokienez:

- Ostegun bukaeran, otsailaren 20an, jarduera bat egin zen Aixola errekararen lixibiatuen zati handi bat iristea saihesteko, aurrerago jakinaraziko dugun bezala.
- Zabortegiko lixibiatuaren laginek, lixibiatuak biltzeko jarduketa hori gauzatu aurretik, amonioan, OEKn eta OEB5ean baino ez zituzten eduki garrantzitsuak
- Ez da dioxinarik eta furanorik atzeman otsailaren 17ko "kutsatzaileak ekortzeko" laginen analisietan.
- Gaur egun, 143 parametroren emaitza analitikoak lortu dira, eta horietatik 64 ez dira detektatu, eskuragarri dauden teknologia aurreratuenekin ere ez baitira iristen detekzio-muga.

Ingurune hartzailean lortutako datuei dagokienez:

- Parametro bakar batean ere ez dira gainditzen ingurumen-kalitateko arauak, amonioa eta OEB₅ izan ezik, 3. eta 4. puntuetan. (hilaren 18ra arte lortutako emaitzak, eta hilaren 17ra arte, hurrenez hurren) eta azken analisietan, berriz, OEK gainditu dela, 3. puntuan (21. egunera arte lortutako emaitzak).
- 3. puntuan (Aixola errekararen zabortegitik behera, ez nahastu Aixolako urtegiarekin, oso goian baitago eta ez baitu inolaz ere zabortegiko jariatzerik jasotzen), gainditzeak lixibiatuarekin bat etorriko dira ziurrenik.
- Uren egoeraren jarraipenaren hasieratik 4. puntuan lortutako kalitate-arauaren gainditzeak ez dute korrelazio zuzenik Aixola errekararekin. Zabortegian luizia izan baino lehen ere, sarritan gainditu dira ingurumen-kalitateko arauak Ego ibaian bai amonioan, bai OEKn, bai OEB₅.
- Zabortegiaren lixibiatuak eragindako eragina, beraz, Aixola errekan baino ez da fokalizatzen, zabortegitik Egorekin bat egiten duen lekuraino (330 metro, gutxi gorabehera), eta ez da aldaketa esanguratsurik ikusi Egoko kutsatzaile bereizgarrien kontzentrazioan.
- Ingurune hartzailean ez da ezta dioxinarik edota furanorik atzeman otsailaren 17ko "kutsatzaileak ekortzeko" laginen analisietan.

Lixibiatuari eustea eta hustea:

Aixola errekararen egindako isurketaren zati handi bat kentzea lortu da, otsailaren 20ko gauean, 2. eta 7. puntuetatik datozen lixibiatuak atxikitze behin-behineko jarduketa baten bidez, eta ondoren, kamioi xurgatzaileen bidez saneamendu-sarera ebakutatuz, eskualdeko HUAN tratatzeko.

Jarduketa hori egin zenetik otsailak 25 asteartean goizaldera arte, eskualdeko HUAN tratatuko diren **365 m³ lixibatu inguru** (0,82 l/s), bildu direla kalkulatu da, eskualdeko HUAN tratatuak izango direnak, Aixola errekararen isurtzea saihestuz.

Bestalde, atzo, otsailak 26, autobidearen ondoko zabortegiko luiziaren gunean lixibiatuak biltzeko putzu bat eraiki zen, eta lixibiatua biltzen hasi ziren, eskualdeko HUAN tratatzeko.

Jarduera horiek eta lixibatu ebakutzeko lanak behar den denboran mantenduko dira, ezar daitezkeen aldaketa eta hobekuntzekin, lixibatu guztiak eskualdeko saneamendura bideratzeko behin betiko konponbidea eman arte, otsailaren 6ko zabortegi-luiziaren aurretik egiten ari zen bezala.

Edateko uraren hornidurari dagokionez:

Interpretazio-akatsik egon ez dadin, jakinarazi nahi dugu Aixola errekastoko eta Ego ibaiko uren kalitate-kontrolen helburua ez dela Gipuzkoako Ur Partzuergoak (Eibar eta Ermuaren kasuan) eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (Zaldibarko uraren kasuan) hornitutako sareko edateko uraren egoera aztertzea (txosten honetan monitorizatzen diren ibaietan jatorria ez dutena). Txorrotako edateko uraren osasun-bermea Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak eta aipatutako erakundeek ezarritako kontrol zorrotzek monitorizatzen eta bermatzen dute. Bi erakunde kudeatzaileek hornitutako urek ez dute jatorria zaborteziaren ingurunean; oso bestelako jatorria dute, hortaz, luiziak eragindako lixibatuek ez dute edateko ura ekoizteko uretan erasanik.

4. Oharrak

Otsailaren 23ra arteko lagin-analisien datu guztiak argitaratu dira.

https://www.uragentzia.euskadi.eus/contenidos/informacion/seguimiento_ultimos_informes/eu_def/adjuntos/20200224_RESULTADOS_AGUAS-VZALDIBAR.XLSX

https://www.uragentzia.euskadi.eus/contenidos/informacion/seguimiento_ultimos_informes/eu_def/adjuntos/20200225_Ur-laginen-analisien-emaitza-bilduma-azaltzeko-oharra.pdf